

OSAKIDETZAREN 2016ko JARDUERA BALANTZEA

OSAKIDETZAK 2015EAN BAINO 4.742 EBAKUNTZA GEHIAGO EGIN DITU

- ✓ *Osakidetzak 122.791 kirurgia-operazio egin zituen, horietako % 62 (sarrerarik gabe) modu ambulatorioan.*
- ✓ *Ospitaleko larrialdiek milioi bat pertsona inguru artatu zituzten (2015ean baino 300.000 gehiago), eta horietatik 600.000k baino gehiagok patologia arina eta oso arina zuten.*
- ✓ *Lehen Mailako telefono-kontsultak egindako kontsulta guztien % 21,5 dira.*
- ✓ *Lehen Mailako eta Espezializatutako profesionalen arteko bertaratu gabeko kontsultak 83.000 dira, 2015ean baino % 30 gehiago.*
- ✓ *Era berean, Osakidetzak, etxeko ospitalizazioaren bidez, 12.503 paziente artatu ditu beren etxeetan. Jarduera hori 445 oheko ospitale baten baliokidea da.*
- ✓ *Osakidetzak lider izaten jarraitzen du, bai populazio-programetan, bai transplanteetan, biztanleen eta bertako profesionalen konpromisoari esker.*
- ✓ *Osakidetzak jarraitzen du aurrez aurrekoa ez den arretaren alde egiten (Osarean), asistentzia-jarraipenerako konpromisoaren barruko arreta osagarri gisa. Osasun-batzordeak 61.109 kontsulta egin ditu kronikoen segimenduan.*
- ✓ *Osakidetzak jarraitzen du teknologia berrien erabilera sustatzen, pazienteen irisgarritasuna eta ahalduntzea areagotzeko (hitzorduetan bidez: 1800.000 hitzordu; Osasun-karpeta: 200.000 sarbide 2016an)*

JARDUERA BALANTZEA ETA KONPARATIBOA 2015. URTEAREKIN

LEHEN MAILAKO ARRETA

Lehen Mailako Arretako Zentroetan **15.330.755** kontsulta egin dira **Familiako, Pediatriako eta Erizaintzako Medikuntzan**.

Gehikuntza handiena Familiako Medikuntzan izan da. Pediatrian kontsulta kopuru bera dago, nahiz eta aurten 1.604 jaiotza gutxiago erregistratu diren **(2.622 Araban, 7.773 Bizkaian eta 5.755 Gipuzkoan)**.

Gainera, **telefono-kontsultak % 22** hazi dira pertsona helduetan eta **% 16 Pediatrian**, eta guztira **2.501.816** kontsulta egin dira **(2015ean baino 184.321 gehiago)**, hots, Lehen Mailako Arretako **gutzizko kontsulten % 21,5**. Gehikuntza horrek azpimarratzen du baliabide hori herritarren artean finkatu dela bere eskuragarritasunagatik.



ESPEZIALIZATUTAKO ARRETA

Espezializatutako Arretan egindako kontsultak **4.257.007** izan dira. Nabarmendu behar da **Lehen Mailako eta Espezializatutako profesionalen arteko bertaratu gabeko kontsulten gorako joera, guztira 83.034 kontsultarekin** (2015ean baino 19.374 gehiago). Horrek % **30eko hazkundera adierazten du aurreko urtearen aldean**. 2016an amaitutako Erakunde Sanitario Integratuen (ESlen) ezarpenak eta garapenak bi laguntza-mailen arteko konexioa erraztu du, datuek erakusten duten bezala. Interkontsulta horiek Lehen Mailako Arretaren ebazpen-gaitasuna handitzen dute eta erantzun azkarra ematen diote pazienteari, behar ez diren joan-etorriak saihestuta.

Nabarmentzen den beste alderdi bat da **pazienteei egindako jarraipen-deiak 43.000 baino gehiago igo direla**, eta guztira **ospitaleko 227.738 telefono-kontsulta** egin dira.



TELEFONO KONTSULTAK

Telefono-kontsulta medikoek eskuragarritasuna errazten diete pazienteei, eta baliabide oso eskatua eta ongi baloratua da. Hori Lehen Mailako Arretan eta Espezializatutakoan emandako laguntza kopuruan ikusten da, **2.729.554, 2015ean baino % 9 gehiago.**

Mailen arabera, **Lehen Mailako Arretan % 8 hazi dira; Espezializatutakoan, berriz, % 23,6an** daude, batik bat pazienteen jarraipena egiteko.



Larrialdiak

Larrialdietako jarduera iazko antzeko parametroetan dago. Jasotako deien kopurua 404.807koa da (2015ean baino % 0,5 gehiago). Anbulantziek lekualdatzeak 171.159 zerbitzu egin dituzte. Etxez etxeko arreta medikoak eta erizaintzakoak % 1,2 hazi dira.

Emergentziak Emergencias

Emergentziak Emergencias	2015	2016	%
Telefonoz kontsultak Llamadas recibidas	403.342	404.807	0,4%
BEA + OBE anbulantziak SVA + SVB ambulancias (medicalizada o enfermería básica)	170.739	171.159	0,2%
Helikoptero medikalizatua Helicóptero	372	335	-9,9%
nº movil. Médicos y enfermería a domicilio	64.631	65.434	1,2%

Ospitalizazioko arreta-adierazleak.

Ospitaleko arretak lehentasunezko helburua du patologia konplexuenak eta ospitale barruan kontrola eta tratamendua behar dutenak artatzea, baina pazienteei, ahal den kasuetan, arreta haien ingurunean emanda, ohiko ospitalizazioaren ordeztu aukeren bidez.

Kirurgia handi programatua % 4 hazi da (122.791 kirurgia-operazio, 2015ean baino 4.742 operazio gehiago) eta larrialdiak % 3 (936.451 pertsona artatu), baina ospitaleko alta kopurua % 1,2 jaitسي da, eta 250.463 pertsona ospitaleratu dira. Batez besteko egonaldiari dagokionez, aurreko urteetan bezala 4,58 egunekoa da.

Ospitalizazioko jarduera Actividad Hospitalaria


Jarduera Actividad	2015	2016	%
Ospitalizazioko Altak Altas Hospitalización	253.579	250.463	-1,2%
IK Nagusia, Programatua IQ Mayor Programada	118.049	122.791	4,0%
Larrialdiak Urgencias	907.472	936.451	3,2%



Larrialdiak

Ospitaleko larrialdietako zerbitzuek **ia milioi bat pertsona artatu dituzte (2015ean baino 30.000 pertsona inguru gehiago)**. Jardueraren **gehikuntza** hori, batik bat, **kasu arinen arretari** dagokio; izan ere, iaz sintomatologia arina zuten **milioi erditik gora paziente** ikusi ziren. Zifra hori 31.839 pertsonatan igo da 2015aren aldean. **Larrialdi oso arinak** jaitsi egin ziren iazkoen aldean, baina horiei 2016an ikusitako **larrialdi arinena** batuta, **artatutako 617.812 pertsonako balantzea** ematen du. **Moderatu-larri eta oso larri** gisa tipifikatutako **larrialdiak** berdin jarraitzen dute, artatutako **323.850** kasurekin.

Lurraldeka, Arabako ospitaleek 168.786 larrialdi artatu dituzte; Bizkaikoek, 479.411; eta Gipuzkoakoek, 288.254.



Kirurgia handi programatuko jarduera

Kirurgia programatua % 4 igo da (122.791 operazio, 2015ean baino 4.742 gehiago). Gehikuntza hori operazio arrunten 5.000 kirurgia-operazio baino gehiagoko igoerak sortu du (117.901), ezarritako lanorduen barruan egindakoak.

Nabarmendu behar den datu bat da **kirurgia handi ambulatorioko** modalitatearen aurrerapena, dagoeneko **Osakidetzan egindako kirurgia handiaren % 62koa** dena. Horrek esan nahi du 3 kirurgia-operaziotik 2 ambulatorioak direla (ospitaleratzeko beharrik gabe).

Kirurgia Nagusia Cirugía Mayor

IK Kirurgia Nagusia IQ Cirugía Mayor	2014	2015	%
Programatuak, guztira			
Total Programadas	118.049	122.791	4,0%
KNA %			
% CMA	59,7	61,9	2,2

Ospitale birtualeko jarduera (ohiko ospitalizazioaren ordezkoko aukerak)

Ohiko ospitalizazioaren ordezkoko aukerak erreferentia dira Osakidetza eskaintzen duen arretan, eta Etxeko Ospitalizazioa eta Kirurgia Handi Anbulatorioa etengabe hazten ari diren zerbitzuak dira. Horrela, **Etxeko Ospitalizazioak % 5 gehitu du bere jarduera, guztira 12.503 sarrerarekin, 589 paziente gehiago iazkoen aldean**, eta pazientearen etxeko arreta horrekin ospitaleko egonaldia laburtu eta behar ez diren sarrerak ekiditen dira. Bestetik, Kirurgia Handi Anbulatorioa **% 8 igo du (5.660 pertsona)** operatutako pazienteen kopurua 2015arne aldean, eta **75.605 kirurgiako** zifra lortu du. **Eguneko Ospitale Medikoan artatutako prozedurei dagokienez** (kimioterapia, odol-transfusioak, endekapen- eta tumore-gaixotasunen tratamenduak, etab.), % 3 jaitsi dira.

Ospitale Birtuala Hospital Virtual			
Ospitale birtuala Hospital Virtual	2015	2016	%
Etxeko ospitalizazioa	11.914	12.503	4,9%
Ingresos Hosp. a Domicilio			
Kirurgia Nagusi Ambulatoria	69.945	75.605	8,1%
Cirugía Mayor Ambulatoria			
Eguneko Ospitalea	329.220	319.095	-3,1%
Procedimientos H Día Médico			

Etxeko Ospitalizazioa

Etxeko Ospitalizazioko sarrerak ospitaleen, Osasun Kontseiluaren, Larrialdien eta Lehen Mailako Arretaren arteko koordinazioaren adibide bat dira, eta paziente horiei etengabeko arreta eskaintzen diete beren etxean bertan.

Etxeko ospitalizazioetan, 162.000 egonaldi egon dira, alegia, etxeko ospitalizazio-egonaldian, batez beste, pazienteak 13 egun egon dira. Jarduera hori 445 oheko ospitale baten baliokidea da.

Patologia akutua sarreraren % 28koa da; patologia kronikoa eta paziente onkologikoak, berriz, horien % 33 dira. Bestetik, zainketa aringarrietako pazienteak sarreraren % 21 dira eta paziente kirurgikoak guztizkoaren % 17.

BAHETZEAREN POPULAZIO PROGRAMAK

Kolon eta ondesteko eta bularreko minbiziaren detekzio goiztiarreko programak euskal populazioaren % 100i eskaintzen zaizkio, gomendatutako adin-tarteetan eta sexuan.

Populazio-programa horiei esker, arrisku handiko 3.283 adenoma eta koloneko eta ondesteko 447 minbizi inbaditzaile detektatu dira, eta bularreko 625 minbizi. Diagnostiko goiztiar hori ezinbestekoa da biziraupenerako, eta, horren bidez, pertsonen bizi-kalitatea hobetzen da.


PADlari (Haurren Hortzak Zaintzeko Programa) dagokionez, 190.618 haur gonbidatu dira parte hartzera (2015ean baino 5.000 gehiago) eta % 66,8 hartu du parte.

Down-en sindromearen eta beste anomalia kromosomiko batzuen jaio aurreko baheketa 15.660 emakumeri eskaini zaie.

Jaioberrien baheketaren programan, sortzetiko gaixotasun larriak detektatzeko, 18.150 jaioberriri egin zaie.

Bahetzearen populazio-programak
Programas poblacionales de cribado

Beste programa batzuk Otros programas	%100eko estaldura		cobertura 100%
	Pertsonak Personas	Parte-hartzea Participan	
Jaio aurreko baheketa-programa Cribado Prenatal	15.660	90,0%	Síndrome Down, Edward, Patau, cromosomopatia eskualek eta beste ghaigardak da baje prevalencia
Kolon-ondestetako minbizi goiz D.P. Cribado Cáncer Colon	240.122	71,0%	Adenoma-entzatu handia eta minbizi-inbaditzaileak 3.283/447 Adenoma de Alto riesgo y Ca. Invasivo
Bularreko Minbizi Goiz D. P. Detec. Precoz Cáncer de mama	167.000	77,3%	Detektatutako minbizi-egurak Cáncer detectados 625
PADI Programa Asistencia Dental Infantil	190.618	66,8%	
programa Cribado Neonatal	18.150	100%	

TRANSPLANTEEN PROGRAMA

Euskadik **65 emale lortu ditu, milioi bat biztanleko**; alegia, Europako balio altuenetan dago, estatuko batez bestekoaren gainetik, kontuan hartuta estatuan batez bestekoa 43 dela milioi bat biztanleko.

Hazkunde hori egindako transplanteen kopuruan ere ikusten da, bai giltzurrunekoetan, gibeleskoetan edo hezur-muinekoetan, eta % 36ra iritsi den Asistoliako Dohaintza Programan (estatuko batez bestekoa % 17koa da).

**Transplanteen Programa
Programa Trasplantes**

Transplanteen programa Programa Trasplantes	2015	2016	%
Emaleak milioi pertsonako Donantes PMP	53	65	22,6%
Giltzurrunetako T. T. Renal	159	168	5,7%
Giltzurrunetako T., emale bizilekin Trasplante renal, Donante vivo	17,0%	12,5%	-4,5%
Gibelesko T. T. Hepático	81	87	7,4%
Hezur-muin emaleak Donantes médula ósea	1.767	1.502	-15,0%
Ehun-emaleak (Ehunak, ehun sakaberridimentsuak, axila) Donante tejidos	164	177	7,9%
Hezur-muin Trasplanteak Trasplantes Médula Ósea	48	60	25,0%
Asistoliako emaleak Donante te en Asistolia	28% Estatuko batez bestekoa / media estatal % 17	36%	8,0%
Familien ezetzak Negativas familiares	10,6%	10,5%	-0,1%

OSPITALEKO ITXAROTE ZERRENDAK

Jarduera kirurgikoa % 4 igo da; operazio baterako batez besteko berandutzeak 50 egunetan jarraitzen du, eta itxarote-zerrendan dauden pazienteen kopurua 17.343koa da.

Aurten, ospitaletik kanpoko kontsulten eskaria areagotu egin da, eta iaz baino 57.473 kontsulta gehiago egin dira; 4.257.007 kontsulta, guztira. Eskarian egon den gorakada hori dela eta, kontsultetan izan den itxarote-zerrendak gora egin du, 6.585 paziente, baina behera egin du batez besteko atzerapenak (26,1 egunetik 25,7ra). Normalean gertatzen den bezala, traumatologia, oftalmologia eta dermatologia dira jarduerarik gehien duten espezialitateak, eta 3 horien artean egiten dute itxarote-zerrendan dauden pazienteen % 45.

Probetarako itxarote-zerrendan beherakada egon da, 469 pazientekoa.

DATU GRAFIKO OSAGARRIAK



Aurreikusitako Jarduera Actividad Prevista

Kirurgiako Itxaron Zerrenda	Paziente kop. Nº Pacientes		Batez besteko atzerapena Demora	
	2015	2016	2015	2016
Lista Espera Quirúrgica	Abendua Diciembre	Abendua Diciembre	Abendua Diciembre	Abendua Diciembre
Cirurgía General	2.901	3.001	46,2	48,7
Oftalmología	3.869	4.180	39,1	43,2
Otorrinolaringología	1.320	1.160	53,2	52,8
Traumatología	5.574	4.942	62,3	60,0
Urología	979	1.038	45,3	42,9
Tocoginecología	811	875	48,0	46,1
Resto de Servicios	2.271	2.147	48,6	47,6
TOTAL OSAKIDETZA	17.725	17.343	50,6	50,2

Aurreikusitako Jarduera Actividad Prevista

Kontsultetako Itxaron Zerrenda	Paziente kop. Nº Pacientes		Batez besteko atzerapena Demora	
	2015	2016	2015	2016
Lista Espera Consultas	Abendua Diciembre	Abendua Diciembre	Abendua Diciembre	Abendua Diciembre
OSI Araba	16.033	15.551	29,2	28,6
OSI Donostialdea	13.688	16.614	20,1	23,8
OSI Goleeri-AU	3.508	3.532	29,8	28,5
OSI Bidasoa	2.350	2.607	20,7	23,8
OSI Bajo Deba	2.389	2.456	13,3	12,7
OSI Alto Deba	1.508	1.649	18,7	26,6
OSI Ezk Enk Cruces	16.727	16.607	25,8	25,3
OSI Bilbao-Basurto	17.466	18.707	31,7	29,0
OSI Barrualde-Galdakao	10.942	12.036	25,7	21,5
OSI Barakaldo-Sestao	4.307	5.113	27,2	27,1
H. Media Larga Estancia	2.206	2.837	17,9	25,6
TOTAL OSAKIDETZA	91.124	97.709	26,1	25,7

Aurreikusitako Jarduera Actividad Prevista

Konsultetako Itxaron Zerrenda	Paziente kop. NR Pacientes		Batez besteko Itxaron-denbora	
	2015	2016	2015	2016
	Abendua Diciembre	Abendua Diciembre	Abendua Diciembre	Abendua Diciembre
Lista Espera Consultas				
Dermatología	9.941	11.438	28,1	31,3
Cardiología	2.954	3.094	10,8	11,3
Digestivo	3.146	3.212	26,0	20,9
Endocrinología	1.518	1.876	19,6	23,2
Neumología	1.812	1.550	23,4	16,5
Neurología	3.551	3.833	24,0	23,7
Cirugía General	2.422	2.805	14,1	19,3
Oftalmología	13.293	13.813	28,1	27,5
Otorrinolaringología	5.920	5.919	25,3	21,9
Traumatología	18.360	18.152	31,7	26,0
Urología	2.922	3.573	25,7	27,7
Cir. Pediátrica	453	442	42,8	30,2
Resto de Servicios	24.832	28.002	24,1	26,5
TOTAL OSAKIDETZA	91.124	97.709	26,1	25,7

Aurreikusitako Jarduera Actividad Prevista


Probetarako Itxaron Zerrenda	Paziente kop. NR Pacientes		Batez besteko Itxaron-denbora Espera media	
	2015	2016	2015	2016
	Abendua Diciembre	Abendua Diciembre	Abendua Diciembre	Abendua Diciembre
Lista Espera Pruebas				
OSI Araba	1.747	1.095	11,4	16,3
OSI Donostialdea	1.534	1.794	4,7	8,6
OSI Goierri-AU	316	481	3,4	6,8
OSI Bidasoa	431	453	7,5	9,9
OSI Bajo Deba	535	471	7,1	6,3
OSI Alto Deba	469	446	5,8	7,5
OSI Ezk Enk Cruces	3.732	3.382	15,2	17,4
OSI Bilbao-Basurto	2.459	2.110	9,9	11,4
OSI Barrualde-Galdaka	4.103	4.661	10,0	12,2
OSI Barakaldo-Sestao	170	134	3,9	4,0
TOTAL OSAKIDETZA	15.496	15.027	9,6	12,4

OSAREAN. BERTARATU GABEKO OSAKIDETZA

Osasun Kontseilua

Osasun Kontseilua **hazten jarraitzen du** jasotako deietan, % **3,4 (artatutako 169.123 kontsulta)**. Horien % 80 Erizaintzak ebatzi ditu zuzenean, eta gainerakoa sendagileei deribatu zaie. Betetzen dituen funtzioen artean, nabarmena da **paziente kronikoei eta/edo telemonitorizazioan daudenei egindako jarraipenaren % 24ko igoera, ia 61.109 pertsona artatu**. Zerbitzu honek berekin dakar beste laguntza-maila batzuekin koordinatzea, eta etengabeko arreta ahalbidetzen du eguneko 24 orduetan, urteko 365 egunetan. Telemonitorizatutako pazienteei dagokienez, jarraipenak alarma-sintomen eta sor daitezkeen arazo zehatzen detekzio goiztiarra errazten du. Gainera, **Osasun Kontseiluak Telelaguntza duten pertsoneri eskaintzen dien osasun-koordinazioaren barruan, 2016an 31.000 kontsulta baino gehiago artatu dira, 2015ean baino % 5,5 gehiago.**

Eusko Jaurlaritzaren Telelaguntza zerbitzuak, gaur egun, 43.300 pertsona baino gehiagori ematen die zerbitzua, batez ere bakarrik bizi diren 80 urtetik gorakoei.



PAZIENTE DIGITALA

Teknologia berriei esker, euskal gizartearen esku zenbait bide jartzen dira, osasun-arretaren eskuragarritasuna eta unibertsaltasuna nabarmen hobetzen dutenak.

Web Hitzordua

Lehen Mailako Arretarako Web Hitzordua, familia-medikurako, pediatarako, erizaintzarako zein emaginerako, zerbitzu digital erabilienetako bat da. Finkatua eta aurrera egiten, iaz **1.800.000 hitzordu baino gehiago** erregistratu dira, hots, **% 12,8ko hazkundera (2015ean baino 205.979 hitzordu gehiago)**. Hitzordu hauek **532.732 pertsonak eskatu dituzte**, 2015ean baino % 10,6 gehiago. Hitzordu digital bat lortzea eta edozein gailu mugikorretatik autokudeatzea erraztu du Osakidetza App-ak. IOS, Android eta Windows bertsioetan dago eskuragarri, euskaraz eta gaztelaniaz.



Osasun Karpeta

Osasun Karpetak % 72 gehitu ditu bere kontsultak, eta 200.000 sarbideak gainditu ditu. 43.000 pertsona baino gehiago sartu dira eskaintzen duen zerbitzu-zorro zabalean.

Osasun Karpeta proiektu dinamiko eta irekia da, etengabeko bilakaeran dagoena, eta teknologia berrietatik eta haien aplikazioetatik sortutako hobekuntzak etengabe gehitzen ditu osasunaren esparruan. Gaur egun, hauxe kontsulta dezakegu: **historia klinikoa, ospitalizazio-txostenak, larrialdiak, proba osagarriak** edo egindako **kirurgia-operazioenak**, gure historia klinikoan **informazioa, dokumentuak edo txostenak** gehitzea, pazientearen **egunkari bat sortzea**, eta **medikuak eta pazienteak elkarri eragitea mezu eta zalantzekin; itzarote-zerrenda kirurgikoa eta adin txikikoen osasun-karpeta kontsultatzea** (sarbide irekia gurasoentzat eta behar bezala baimendutako tutoreentzat.).

